



Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
1	2018-09-01

Lan taldearen memoria

Lan taldea:

TBL

ikasturtea:

2018-2019

1. Sarrera

Aurten lehenengo pausoak eman ditugu lan talde bezala eta informazioari eta auto-formazioari ekin diogu. Parte-hartzailei dagokionez, 3 pertsona hasi ginen: LHko 2 aholkulari (Mikel Fernández eta Iñigo García) eta HPBko bat (Pako Sánchez). Azken hau abenduan erretiratu zen eta bere ordeztu Aitor Santisteban (BHko aholkularia) gehitu zen taldera.

Izan ere, oso garrantzitsua ikusten dugu talde honen partaideen profila heterogeneoa izatea; hau da, LHko DBHko eta HPBetako ordezkariak osatzea.

Kanpoko 2 prestakuntzatan hartu dugu parte:

- Ikasgiltzak antolatutako neurohezkuntzari buruzko 1. Jardunaldiak. (Artium)
- Integratekek antolatutako Jesús C. Guilléne "Neuroeducación en el aula: de la teoría a la práctica" ikastaroa (Bilboko Jesuitak Indautxu ikastetxea).

Lehenengo ikasturte honetan hauexek izan dira gure zereginak:

- Informazioa bildu, antolatu, prozesatu.
- PAMaren hezurdura diseinatu.
- Datorren ikasturterako ekintzak antolatu:
 - David Buenok emango dituen prestakuntza saioak adostu. (Irakasleak, zuzendaritza taldeak eta aholkulariak).
 - 2019-2020. Ikasturtean Arabako Errioxan jorratuko den "Neurodidaktikari" buruzko mintegiari itxura eman.

2. Taldean ekoiztutako dokumentuak

Aurten ekoiztutako dokumentuak datorren ikasturtean gauzatuko den PAMari begira egin dira; hau da, barneko dokumentuak dira, erabilgarria izan daitekeen informazio-biltegi moduan erabiltzeko.

Hauexek dira aipatutako dokumentuak:

- SITEa: (historia laburra, oinarri neurobiologikoak jasotzen dituen).
- PDFa: sitearen informazioa gehi neuromitoen deskripzio-fitxak jasotzen dituen.
- PPTa: PAMaren hezurdura osatzen lagunduko duen gai batzuen laburpena (Tomás Ortízen liburua).
- Bibliografia gomendagarria.

3. Taldekideek ikastetxeetan egin diren esku-hartze nabarmenenak

Ez dira ikastetxeetan esku-hartzerik egin, aurten.



Berritzeguneak
Vitoria-Gasteiz



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA
Prestakuntzan eta Hezkuntzaren
Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Centros de Apoyo a la Formación e
Innovación Educativa

MD12013

Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
1	2018-09-01

4. Prestakuntza ekintzak: taldekideek emandako ikastaro eta mintegiak

Ez dira oraindik ikastaro edo mintegirik egin.

5. Datorren ikasturterako aurreikusten diren zereginak

Datorren ikasturteari begira, komenigarria izango litzateke taldea egonkortzea, HPBko eta BHko arlo zientifiko-teknologikoko aholkulari bana gehituz.

Horretaz aparte bi zeregin nagusi aurreikusten dira datorren ikasturterako:

- Neurodidaktika PAMa bukatzea.
- Neurodidaktika mintegi bat Arabako Errioxan (bertan pilotatuko eta egokituko da PAMa).